

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 26/2022 Foru Dekretua, ekainaren 21ekoa. Onestea Diputatu Nagusiaren Sailak eman beharreko sariak arautzen dituzten oinarri orokorrak

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuaren bidez, onetsi ziren Diputatu Nagusiaren Sailak lehia bidez ematen dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak (ALHAOren 84. zk., 2020ko uztailaren 27koa). Hala ere, 23/2020 Foru Dekretu horren bigarren oinarrian, aplikazio eremutik kanpo utzi ziren Diputatu Nagusiaren Sailak ematen dituen sariak.

2019ra arte, Diputatu Nagusiaren Saila Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 8ko 23/2008 Foru Dekretuaren bidez araututako ezagutzak izapidetzeaz bakarrik arduratzen zen (dekretu horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren ohore eta goraipamenera araudia onetsi zen). Hala ere, Euskararen Foru Zerbitzua Diputatu Nagusiaren Sailari atxiki izanaren ondorioz (azken honek Lazarraga sariaren deialdia egiten zuen urtero) eta arestian gizarte berrikuntzarako sariaren deialdia egitearen ondorioz, beharrezkotzat jo da oinarri orokor batzuk arautzea Diputatu Nagusiaren Sailaren esku jarritako eginkizunei dagozkien gaietan ezar daitezkeen sari guztiak emateko, horiek emateko prozedura homogeneizatzeko eta betebeharrak eta irizpide komunak ezartzeko helburuz.

Diputatu Nagusiaren otsailaren 14ko 64/2022 Foru Dekretuaren bidez, foru dekretu proiektuaren alde aurreko onespina erabaki zen.

Foru dekretuaren xedea Diputatu Nagusiaren Sailak ematen dituen sariaren arauak ezartzea da.

Arau orokor horien barnean sartzen dira bai diru zuzkidura daukaten sariak, bai zuzkidurarik ez duen edo garrantzirik gabeko diru zuzkidura duen ezagutza instituzionala dakarten sariak, Diputatu Nagusiaren Sailaren gain dauden eginkizunekin zerikusia duten eremuetan.

Xedapen orokor hau bat dator Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak ezartzen dituen arautze egokiaren printzipioekin (foru dekretu horren bidez onarpena eman zitzaizen xedapen orokorrak egiteko prozedurari, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidei eta araugintza teknikari buruzko jarraibideei).

Halaber, arau orokor hauek bat datoz Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoarekin, emakume eta gizonen berdintasun printzipioa betetzeari eta sexuarengatiko bereizkeria oro espresuki debekatzeari dagokionez.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horren ondorioz, Arabako diputatu nagusiak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Diputatu Nagusiaren Sailak ematen dituen sariak arautuko dituzten oinarri orokorrak, eranskin moduan honekin batera doazenak.

Bigarrena. ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskaren eta Gobernu Irekiaren zuzendaria

LEXURI UGARTE ARETXAGA

ERANSKINA

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILAK EMATEN DITUEN SARIEN ARAU OROKORRAK

Lehenengoa. Xedea eta aplikazio eremua

1. Dekretu honetan, Diputatu Nagusiaren Sailak ematen dituen sariak (diru zuzkidura izan edo ez) arautuko dituzten oinarri orokorrak ezartzen dira, sarien helburua pertsona fisiko edo juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko, juridiko, entitate edo kolektibo taldeen proiektu, jarduera edo portaera meritudunak aintzatestea bada, Diputatu Nagusiaren Sailaren eremu funtzionalarekin lotutako sektoreetan.

2. Arau orokor hauek Diputatu Nagusiaren Sailari esleitutako eginkizunekin zerikusia duen edozein sariri aplikatuko zaizkio.

3. Oinarri orokor hauetatik kanpo geratzen dira Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 8ko 23/2008 Foru Dekretuak (Arabako Foru Aldundiaren Ohore eta Sarien Arautegia onesten duena) bere aplikazio eremuaren barnean hartzen dituen ohorezko sari eta aintzatespenak.

4. Aldizka, deialdiak onetsiko dira, zeien edukia, gutxienez, honako hau izango baita:

a) Oinarri orokorrak arautzen dituen xedapenaren aipamena, eta noiz argitaratu den ALHAOn.

b) Sarien xedea eta helburua.

c) Emango diren sarien kopurua.

d) Hala badagokio, sariak egozten zaizkien aurrekontu kredituak eta sari bakoitzaren zenbatekoa.

e) Hautagaiak bete beharreko baldintzak.

f) Hautagaiak aurkezteko epea eta modua, eta nortzuk aurkez ditzakeen hautagaiak, norbera zein beste batzuk izan.

g) Hautagaiak balioesteko irizpideak. Deialdian zehaztuko da zer irizpideren arabera balioetsiko diren proposatutako hautagaiak.

Betiere, balioespenean, hautagaitza bakoitzean genero-ikuspegiaren integrazioa kontuan hartuko da, epaia emateko garrantzizko elementu garrantzitsu gisa.

Halaber, sariak sustatzen dituen zuzendaritzak aztertuko du ea hizkuntzen erabilera faktore garrantzitsua den saritutako jardueran, bai eta jarduera hori norentzako den ere, eta, hala badagokio, hizkuntza-irizpideak zehaztuko ditu sarien deialdien oinarrietan, bi hizkuntza ofizialei tratamendu egokia ematen zaiela bermatzeko.

h) Epaimahaiaren funtzionamendua, arau orokor hauetan aurreikusten ez diren gaiiei dagokienez.

5. Deialdietan, eskakizun edo balorazio-irizpide gisa, kontuan hartuko da emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea saritu beharreko erakundeetako zuzendaritza batzordeetan edo ordezkaritza organoetan, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.1 artikulua betez.

Lege testu horren 24.5 artikulua arabera, ezin izango zaie inolako laguntza edo aitortpenik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten entitateei.

6. Deialdian sortutako dokumentazio eta publizitate guztiak bermatuko du hizkera bisual eta idatzi ez-sexista.

Bigarrena. Sariaren kudeaketa

Gaiaren arabera ardura duen saileko zuzendaritzari dagokio sariak kudeatzeko lanak egitea.

Hirugarrena. Hautagaien aurkezpena

1. Epaimahaikideek, sari bakoitzaren xede diren jarduerekin zerikusia duten erakundeek edo onuradun izan daitezkeenek aurkez ditzakete hautagaiak, edota hirugarren pertsonen hautagaitzak aurkezteko interesa duen edozein pertsonari irekitako partaidetza prozeduren bidez aurkez daitezke, betiere pertsona fisikoez hautagaitzak aurrez aurre aurkezteko mekanismoen bidez parte hartzeko duten eskubidea errespetatuz. Horretarako, deialdi bakoitzean zehaztuko da hautagaitzak aurkezteko prozedura.

2. Hautagaitzek behar bezala justifikatuta egon beharko dute, eta saria jasotzeko egin ditzuten merezimenduak zehaztu beharko dira. Proposamenarekin batera, egokitutako jotzen diren abal edo atxikipen guztiak aurkeztu ahal izango dira. Era berean, sariak kudeatzen dituen zuzendaritzak partaidetza prozedurak gaitu ahal izango ditu bide telematikoen bidez, pertsona fisikoez mekanismo ez-elektronikoen bidez parte hartzeko duten eskubidea ere babestuz.

Laugarrena. Epaimahaia

1. Gutxienez hiru kidek osatutako epaimahai batek erabakiko du sari bakoitza. Kide horiek diputatu nagusiak izendatuko ditu, saileko zuzendaritza bakoitzak proposatuta, gaiaren arabera, sariaren xede diren jardueretan ospe handia duten pertsonen artean, epaimahaiaren egokitasuna, gaitasuna eta independentzia ahalik eta gehien bermatuta egon daitezen. Gainera, sari bakoitzaren aurreko deialdian saritutako pertsona, erakunde edo kolektiboek ere parte hartu ahal izango dute epaimahaian.

Epaimahaiaren osaeran emakume eta gizonen presentzia orekatua izango da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 20 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Gaiaren arabera eskumena duen zuzendaria izango da epaimahaiburua, eta beste ordezkari baten esku utzi ahal izango du postu hori. Halaber, mahaiburua Saileko funtzionario bat izendatuko du epaimahaiko idazkari izateko. Honek hitza izango du, baina botorik ez.

3. Epaimahaikideen izenak ezagutzera emango dira haien izendapenak ALHAOn argitaratuz.

4. Emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak, eta berdinketarik gertatuz gero, lehendakariak desegin ahal izango du berdinketa. Idazkariak hartzen diren jarduera eta erabaki guztien akta egingo du, eta sariari buruzko epaiaren oinarri den irizpen arrazoitua agertu beharko da hartan.

5. Arau orokor gisa, epaimahaiak hautagai bat proposatuko du sari bakoitzeko. Hala ere, salbuespen gisa, epaimahaiak honako hau ere proposatu ahal izango du:

a) Saria, ex aequo, hautagaitza bati baino gehiagori ematea. Erabaki horren arrazoi bereziak espresuki azaldu beharko dira. Hala eginez gero, sariaren diru zuzkidura zati berdinetan banatuko da saritutako hautagaitzen artean.

b) Saria eman gabe uztea, baldin eta, bere ustez, nahiko merezimendu egiaztatzen duen hautagaitzarik ez bada aurkeztu.

6. Foru agindu honetan xedatuta ez dagoen guztian, urriaren 1eko 40/2015 Legeak (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea) kide anitzeko organoei buruz araututakoari jarraituko zaio.

Bosgarrena. Epaimahaiaren epaia eta ebazpena

Epaimahaiaren erabakia diputatu nagusiari helaraziko zaio, dagokion zuzendaritzaren bitartez, eta saria emateko ebazpena ALHAOn argitaratuko da.

Saria emateko erabakia diputatu nagusiak hartuko du hiru hilabeteko epean, dagokion deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta arrazoitua izan beharko da.

Ezarritako gehieneko epea igarota ebazpen espresurik eman eta argitaratu ez bada, aurkeztutako hautagaitzak ezetsi direla eta deialdia hutsik geratu dela ulertuko da.

Epaia banan-banan jakinaraziko zaie saritutako pertsona, erakunde eta kolektiboei, eta argitara emango da ALHAOn eta Arabako Foru Aldundiaren gardentasun-atarian.

Seigarrena. Saria onartzea

1. Saritutako hautagaiak onartu beharko du emandako saria. Horri dagokionez, onartutzat emango da ez badio uko egiten, espresuki eta idatziz, hamabost egun balioduneko epean, ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

2. Saritutako hautagaiek uko egiten badiote sariari, epaimahaiak aukeratutako beste hautagai bati eman ahal izango zaio saria, edo hutsik geratu ahal izango da. Hala gertatuz gero, ebazpena emango da sariari uko egin zaiola eta epaimahaiak proposatutako hurrengo hautagaiari eman zaiola adierazten duena, edo saria eman gabe utzi dela adieraziko da. Hautagai berriari jakinaraziko zaio saria eman zaiola, eta aurreko lehen apartatuan ezarritakoarekin bat etorritz jokatu du.

Zazpigarrena. Sari banaketa

Emandako sarien banaketa, horretarako deitutako ekitaldi publiko batean egin ahal izango da. Ekitaldiak garrantzi, hotsandi eta publizitate egokia izango du.

Ekitaldi horretan, hizkuntza ofizialei presentzia emango zaie Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 57/2019 Foru Dekretuak (Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean hizkuntza ofizialak erabiltzeari buruzko irizpideak onesten dituen) 6. irizpidean xedatutakoaren arabera.

Zortzigarrena. Saria ezeztatzea eta itzultzea

1. Egitate frogatuen bidez agerian gertatzen bada faltsutasuna izan dela saria emateko arrazoietan, edo legez kanpoko jokabide bat, edo saria emateko oinarri diren xedearen eta helburuaren aurkakoa, ezeztatu egingo da saria.

2. Esandako kasuetan, diputatu nagusiak, ebazpen arrazoitu bidez, saria ezeztatu ahal izango du, horretarako izendatutako epaimahaiak gaia aztertu ondoren ondoren.

3. Emandako diru kopurua erreklamatzeko preskripzio-epea ez bada igaro, saria ezeztatzeak berekin ekarriko du jasotako diru kopurua itzultzea.

Bederatzigarrena. Aplikatu beharreko araudia

Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoenerako, pertsona onuradunek aldez aurretik eskatuta ematen diren sarien deialdietan honako hauek aplikatuko dira: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua. Gainerako sarie-tarako, arau testu horiek modu osagarrian aplikatuko dira, haien izaera juridikoarekin batera-garriak diren heinean.

Halaber, oinarri hauen ondoriozko sarien deialdiak Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeari (emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako) eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoari (emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako) egokituko zaizkie.

Hamargarrena. Indarrean jartzea

Oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.